

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2017ko APIRILAREN 6an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2017ko apirilaren 6an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbietta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakartzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta
Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/
Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:
➤ 2017ko martxoaren 9an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha
9 de marzo de 2017.
2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.
3. 2016ko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada./Dación de
cuenta de la liquidación correspondiente al ejercicio 2016.
4. Larraulgo Urbeltz 39 eskubiko etxearen sarreran, markesina bat jartzeko
obra baimena eskaera, I.B./ Solicitud de licencia de obras para colocación
de una marquesina en la entrada a la casa Urbel 39 dch., I.B.
5. Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2016 urteari dagokion memoriaren
onéspena, hala bada/ Aprobación de la memoria presentada por
Tolosaldeko Ataria, correspondiente al ejercicio 2016.
6. Tolosaldeko Atariari 2017 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala
bada./ Ayuda económica a Tolosaldeko Atariari correspondiente al ejercicio
2017.
7. Larraulgo Udal langileen opor egutegiaren onéspena, hala bada./ Aprobación
de los calendarios de vacaciones de los trabajadores del Ayuntamiento de
Larraul.
8. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
9. Beste batzuk/Otros.
10. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10.1.Martxoak 21: Arrazakeria eta Xenofobiaren kontrako Nazioarteko eguna, adierazpen proposamenari atxikimendua/Adhesión a la declaración institucional del 21 de marzo: Día internacional contra la discriminación racial y la xenofobia.

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2017 urteko martxoaren 9ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

05/2017 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 21ekoa, 2016ko aurrekontuaren likidazioa onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA


2016 KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Idazkari-kontuhartzaileak 2017/05 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2015 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik

2017/05 ALKATE DEKRETUA

Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Lehena.- Udal honen 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA


1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2016-12-31n:		87.080,81
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		50.111,44
Aurrekontuko zordunak :	48.766,56	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	1.344,88	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2016-12-31n:		64.748,72
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	45.830,57	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	18.918,15	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		72.443,53
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		12.580,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		59.863,53

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	2.324,66
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	66,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	50.557,28
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	52.947,94

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	42.241,18
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	22.604,13



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):

64.845,31

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

Laugarrena.- 2017ko martxoaren 21ean egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA

2016ko Aurrekontuaren likidazio espediente kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2016rako aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2016rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Eta argi eta garbi ikusten da likidazio espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditzen da.


LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO URBELTZ 39 ESKUBIKO ETXEAREN SARRERAN, MARKESINA BAT JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, I.B.

Ikusirik I.B. jaunak eginiko eskaera, non Larraulgo Urbeltz 39 eskubiko etxearen sarreran, markesina bat jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2017ko martxoaren 31an, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean dioena:

"LARRAULGO URBELTZ 39 eskubiko ETXEAREN SARRERAN, MARKESINA BAT JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

I.B. jaunak, Urbetz 39 eskubiko etxearen sarreran markesina bat egiteko baimena eskatzen du, sarreraren 3 argazki, egin beharreko lanen aurrekontu eta plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Aurkeztutako eskarian, ipar mendebaldean kokatua dagoen etxeako sarreraren babeserako markesina bat moldatu nahi dela esaten da. Markesina hau egurrezkoa izango litzateke teilazko estaldura batekin, etxearen teilatuaren itxura jarraituz. Estalpe honen hegala 1m-koa izango da eta luzera 3m-koa. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 706,77€-koa izango litzateke.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinaren kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute.

Urbetz 39 etxea Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.2.1 ELIZEGI unidatean. Proposatzen den markesinak, fatxada lerrotik kanpora dagoen hegala bat izanik, ez du hirigintzako aprobetxamendurik aldatzen.

Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko eraikinaren kanpo itxurari buruzko 25, 36 eta 37 artikuluek honela diote;

Artículo 25.- Cubiertas.

El vuelo máximo del alero respecto de cualquier fachada será de 1,00 mt, exceptuando las fachadas principales en las que se podrá llegar hasta 1,20 mt....

Artículo 36.- Fachadas.

La composición de las fachadas de los nuevos edificios será respetuosa con las de los edificios existentes en Larraul.


Podrá denegarse la licencia de edificación por motivos de orden estético cuando las fachadas resulten, de modo manifiesto, impropias del lugar de su emplazamiento....

Artículo 37.- Materiales a emplear en los edificios.

Los materiales a emplear en las nuevas construcciones, o reforma de las edificaciones existentes serán los tradicionales en el municipio:

...

- Cubiertas: Se terminará con teja cerámica en su color natural o teja de hormigón de color y textura similares a la cerámica. Se prohíbe la utilización de materiales como las placas de fibrocemento, asfálticos, pizarras, chapas metálicas, etc. En elementos de pequeña superficie (miradores, vuelos) podrá utilizarse materiales nobles como el cobre para la cubrición de los mismos.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- *Carpintería: La carpintería exterior será de madera natural o pintada en tonos oscuros preferentemente. Se admitirá la utilización de carpinterías de otros materiales (PVC, carpintería metálica) pintada o lacada en colores apropiados...*

Hau honela izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraispen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean"

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.B. eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz 39 eskuineko etxearen sarreran, markesina bat jartzeko obra baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIAK AURKEZTURIKO 2016 URTEARI DAGOKION MEMORIAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2016eko ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzta Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2016 ekitaldiko memoria eta aurrekontu kudeatua onestea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-ri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIARI 2017 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetz hitzarmena 2017U urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Ikusirik, 2017 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidari, Tolosaldeko Atariari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetz hitzarmena onartzea 2017 ekitaldirako. Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2017 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDAL LANGILEEN OPOR EGUTEGIEN ONESPENA, HALA BADA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2017 ekitaldirako opor egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: 2017 urterako Udal langileek aurkezturiko opor egutegiak onartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

MONTAJES GARRA	4.440,94
ULAHI	377,52
FERRETERIA BARBE	82,59



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BERRI LANTEGIA	23,46
SANIPLAST	62,11
KOLDO JAUREGI	1.022,45
ZU ETA BIOK	910,04
AITZOL EUSKALTEGIA	73,08
EBA ERKIZIA	1.085,22
KIROLZER	65,75
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.724,00
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	916,10
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	921,87
BULEGOAK	210,83
BELAKO	60,00
GARAJE EKIN	442,07
GRUPO DELTA	11,86
AMONARRIZ ITURGINTZA	334,06
GALPARSORO	290,40
CORREOS	7,71
IBERDROLA	62,71
IBERDROLA	138,80
IBERDROLA	204,67
IBERDROLA	179,81
IBERDROLA	25,99
IBERDROLA	202,72
IBERDROLA	83,73
MOVISTAR	18,39
MOVISTAR	68,49
MOVISTAR	133,31


Udalbatzarrak aho batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **17.180,68** eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

9.1. 2016 URTEKO KULTUR ASTEKO GASTUEN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2015eko azaroak 18tik azaroaren 29ra Larraulgo Aste Kulturala egin dela bertan hainbat gastu egon direlarik. Ondorengoak izanik:

ORDAINKETAK

Egutegia (111)	550,00
Mendi irteerako materiala	34,16
Ostatua	20,20

Ekintzak

-Hitzaldia Maskarada	200,00
-Hitzaldia Jakoba Errekondo	200,00
-Saseta lineari buruzko hitzaldia	150,00
-Putinen Guardasola antzezlan	600,00
-Break Dance	200,00

GUZTIRA 1.954,36

DIRU SARRERAK

-Udalaren ekarpena 2.000,00 euro

GUZTIRA: 2.000,00 euro

ORDAINKETAK: -1.954,36euro

BALANTZEA: 45,64 euro

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- 2016ko aste kulturalako gastuen kitapena onestea.


HAMARGARREN PUNTUA

ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

10.1."MARTXOAK 21: ARRAZAKERIA ETA XENOFIARIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA" ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Tolosaldea Garatzen-ek ondorengo adierazpen instituzionala aurkezten du:

“Nazio Batuen Batzar Nagusiak martxoaren 21ean ospatzen du Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna, eta estatu-kideei eskatzen die ekintza-



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

planak abiarazi ditzaten, arrazakeria eta apartheidia ezabatzeko. UNESCOko zuzendari nagusiak 2017an zabaldutako mezuak gogorarazten digu *arrazakeriak gizabanakoak eta gizartea hondatzen dituen pozoia dela, ezberdintasunak iraunarazten dituela, eta haserrea, amorrua eta indarkeria bultzatzen dituela. Krisi ekonomikoa eta ziurgabetasun soziala ezaugarri duten garaiotan, erraza da "besteak" erruduntzat hartzea, eta arraza-diskriminazioa tentazio arriskutsua bihurtzen da, zeina gorrotoaren artisauek ondo aprobetxatzen dakiten.*


Gaur egungo arrazakeria-, arraza-diskriminazio, xenofobia- eta antzeko tolerantzia-ezeko ereduak NBEko errelatore bereziak txostena egin zuen 2013an Espainiaren inguruan. Bertan, gogor kritikatu zuen arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria, eta baietzi zuen migratzaile, ijito eta errefuxiatuen eskubideak urratzen zirela. Zehazki, adierazi zuen krisi ekonomikoak atzerakada ekarri zuela arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan; besteak beste, ildo horretan lan egiten duten erakundeek laguntza finantzarioaren ezagatik.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren Aurkako Europako Batzordea (ECRI) Espainiara etorri da 2017ko urtarrilean, bosgarren txostena egiteko asmoz. Laugarren txostenean (2011) Nazio Batuetako errelatoreak agertutakoen antzeko kezkek jaso ziren.

Martxoaren 21ak gogorarazten digu edonolako arraza-diskriminazioa ezabatu beharra dagoela; eta bereziki garrantzitsua gertatzen da, gizarte guztietan oraindik jarraitzen eta irauten duten xenofobia-mota sotilez gain, beste xenofobia-adierazpen kezkarriak azaleratu direlako, gobernuak, gizarte-erakundeek, alderdi politikoek eta beste hainbat eragilek sustatuta. Horiek xenofobia-eredu instituzionalizatuak bihurtu daitezke eta, ondorioz, diskriminazioa ekarri dezakete. Halako jarrerak, behin martxan, oso zailak dira gelditzen. Jakina, Europatik iristen diren oihartzun larrigarri ugariak direla-eta, egoerarik txarrena aurreikusten dugu, eta horixe barneratzen dugu, bai eta Europaren aukera ere.

Mugimendu xenofoboak gizartean zabaldu ohi dira, inpunitate-eremuak zein onspen-guneak sortuz. Egoera horiek sendotu eta finkatu egiten dira liderrak proposatzen dituztenenean, gizartean haien parekorik ez dagoela baieztatzen dutelarik. Hala, pentsamolde ideologikoak askatzen dituzte, zeinek, lehentasun nazionalaren izenean, tartea gordetzen eta indartzen duten biztanleriak duen immigranteen behar materialaren eta etorkinek harrera-gizarteetan jasaten duten gaitzespenaren artean. Bada logika hori –lagungarria eta okerra dena aldi berean– laburtzen duen lema bat: *Needed, but not Welcome!*

TOLOSALDEKO UDALA, ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarearen parte izanik, aditzera eman nahi dugu **konpromisoa hartu dugula dauden prozedura eta**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

mekanismo guztiak sustatu eta abian jartzeko, xenofobia- eta diskriminazio-ereduak –sotilak eta agerikoak, ala ez hainbeste– sustatu nahi dituzten proposamen politiko eta diskurtsoak ahultzeko. Adierazpen eta diskurtso horiek ez dira gure izenean egingo, ez eta erakundeen izenean ere.

Ikusirik politika xenofoboek zenbateraino egin duten aurrera European eta mundu-mailan, berretsi nahi dugu gure konpromisoa; hots, inpunitate-dinamikak galaraztearena baiezko demokratiko eta irmo baten bidez, ez daitezen gobernura iritsi. Giza eskubideek lehentasuna dute, eta eskuratu ditugun gobernu-moldeek barne hartu behar dituzte; horretarako, beharrezkoa da erakundeek irmoki uko egin diezaietela xenofobiari eta arrazakeriari.

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sareak ezinbestekotzat jotzen du:

▣ Arrazakeria eta xenofobia prebenitu eta ezabatzeko politika publikoak nahiz gizarte-estrategiak bultzatzea, ikuspegi deskolonizatzaile batetik eta elkargunea bilatuz.

▣ Immigranteek egindako ekarpenak azpimarratzea, eta Euskadiko biztanle guztien aukera berdintasuna bermatzea, baita sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalerako aukerak indartzea ere.

▣ Kulturartekotasunaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako jarrerak sustatzen dituzten hedapen- eta sentsibilizazio-ekintza nahiz estrategiak aktibatzea, zurrumurruen aurkako sareak sendotuta eta hezkuntzari arreta berezia eskainita, formalari zein ez-formalari.

▣ Etika publikoa sustatzea, zeinak herritarrak kontzientziatuko dituen eta edozein arrazakeria- edo xenofobia-aztarna ezabatuko duen.

▣ Alderdi politiko guztiek kode etikoa bereganatu dezatela gomendatzea, konpromisoa hartu dezaten demagogia eta populismorik ez egiteko immigranteen inguruan; bai eta mekanismoak ezarri ditzatela ere, konpromiso hori betetzen ez dutenak zehatzeko.. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea Garatzen-ek aurkezturiko” Martxoak 21: Arrazakeria eta xenofobiaren kontrako nazioarteko eguna” adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA